

*Aurrerabidea izango da
soilik guztiok egiten
badugu aurrera*

Gida azkarra
2021



115 urtetik gorako konpromiso soziala


“la Caixa” Kataluniako eta Balearretako Zahartzaro eta Aurrezki Pentsioen Kutxa 1904ko apirilaren 5ean sortu zuen Francesc Moragas Barret abokatu katalanak, Kataluniako gizarte zibileko hainbat erakunderen laguntzarekin.

Hasiera-hasieratik, “la Caixa” Fundazioak **konpromiso sozial sendoa eta guztion interesaren alde lan egiteko bokazioa** izan ditu, dela jarduera finantzarioaren bitartez, dela gizarte ekintzaren bitartez, eta

gizartearen, hezkuntzaren, kulturaren eta zientziaren arloko jarduerak finantzatzen eta mantentzen ditu.

Inbertsio sozialaren bolumenari dagokionez, “la Caixa” Fundazioa **Espainiako lehen fundazioa**, Europako bigarrena eta munduko garrantzitsuenetako bat da.

Egiturari dagokionez, “la Caixa” Fundazioa bere enpresa ondarea kudeatzen duen **CriteriaCaixa** holding finantzarioaren jabea da.



”la Caixa”

Fundazioren *muina*

Hasiera-hasieratik lurraldearen garapen sozioekonomikoarekin konprometituta, ”la Caixa” Fundazioa berehala hasi zen gizartearen eta kulturaren arloetako zerbitzuak eta zerbitzu zibikoak eskaintzen, pertsonen bizi kalitatea hobetzeko.

Fundazio bat denez, haren **misioa edo egitekoa** gizarte hobea eta bidezkoagoa eraikitzea da, gehien behar duten pertsoneri aukerak emanez, hasieratik beti bidelagun izan dituen bikaintasunaren, konfiantzaren eta konpromiso sozialaren **balioei** jarraikiz. Hori guztia, gizartean erreferentziako erakundea izateko **ikuspegiarekin**, egoera ahulenean dauden kolektiboen oinarrizko beharrei erantzungo dieten konponbide iraunkorrak garatzeari dagokionez; gizartearen aurrerabidea bultzatuko duten konponbideak, ikerketaren, bikaintasuneko prestakuntzaren eta hezkuntzaren erronka berriei erantzunez; eta zientzia eta kultura gizarteko segmentu guztietara hurbilduko dituzten konponbideak.



Pertsonen orainarekin eta etorkizunarekin *konprometituta*

”la Caixa” Fundazioak bereziki erreparatzen die inpaktu eraldatzaile handiena duten programei, hala nola haurren pobrezia eta gizarte bazterketa gainditzeko lagungarri direnei, enplegua sustatzen dutenei eta egoera ahulenean dauden pertsonen bizi baldintzak hobetzen laguntzen dutenei.

”la Caixa” Fundazioaren jarduera, gainera, beste esparru batzuetara ere biltzen da: ikerketa medikoa, bikaintasuneko prestakuntza, kultura eta hezkuntza, funtsezkoak baitira aurrerabidea eta aukera berdintasuna sustatzeko. ”la Caixa” Fundazioak gizarte hobea lortzeko konpromiso soziala du, eta Espainia eta Portugal dira haren jarduketaren lurralde nagusiak.

PROGRAMA SOZIALAK

Eraldaketa soziala bultzatzen dugu

HAUR POBREZIA

CaixaProinfancia programaren bidez, familiei laguntzen diegu 0-18 urte bitarteko adingabeen gizarte eta hezkuntza garapenean.



400 entitate kolaboratzaile baino gehiago

Artatutako haurren kopurua:

Programan, 2020an: **58.841**

Euskadin, 2020an: **790**

ARRETA OSOA GAIXOTASUN AURRERATUAK DITUZTEN PERTSONENTZAT

Laguntza psikosoziala eta espirituala ematen diegu hiltzear dauden pertsonen eta haien senitartekoei.



Euskadin:

2 talde 5 ospitaletan

Artatutako gaixoak:

Programan, 2020an: **28.861**

Euskadin, 2020an: **863**

Artatutako senitartekoak:

Programan, 2020an: **36.821**

Euskadin, 2020an: **1.416**

ENPLEGUA

Zailtasunak dituzten pertsonen lana eskuratzen laguntzen diegu, 531 erakunderen lankidetzaz.



Lan kontratuak:

Programan, 2020an: **38.422**

Euskadin, 2020an: **866**

Enpresa kolaboratzaileak:

Programan, 2020an: **11.709**

Euskadin, 2020an: **404**

ADINEKOAK

Adineko pertsonen ondoan gaude, haien hazkunde aukerak ahal bezain handiak izan daitezzen, eta babes harremanak errazten dizkiegu, bakardadea eta isolamendua prebenitzeko, bizi osoa eta komunitatearekin konprometituta izan dezaten.



Parte hartzaileak:

Programan, 2020an: **236.111**

Euskadin, 2020an: **8.806**

Jarduerak:

Programan, 2020an: **7.497**

Euskadin, 2020an: **151**

GIZARTE BEHATOKIA

Gizartearen errealitatea aztertzen dugu gizarteratze, hezkuntza, zientzia eta kultur gaiei dagokienez gizarte zientzietan ematen diren joeren eta emaitzen berri emateko gizarteari.



10.973 harpidedun

44 eduki berri (artikuluak, elkarrizketak, aipamenak eta infografiak)

GIZARTE EKIMENEN PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK

Irabazi asmorik gabeko erakundeekin lankidetzan dihardugu, gizarte zaurgarritasun egoeran dauden pertsonentzako ekimenak bultzatzeko.



Proiektuak:

Programan, 2020an: **804**

Euskadin, 2020an: **13**

NAZIOARTEKO KOPERAZIOA

Egoera okerrean dauden kolektiboak garatzen eta haien osasuna hobetzen laguntzen dugu Afrikan, Asian eta Latinoamerikan.



Malariaren, pneumoniaren eta malnutrizioaren aurka borrokatzen gara, hauen laguntzarekin: Bill eta Melinda Gates Fundazioa, ISGlobal, Unicef, Gavi eta ACNUR.

Emakumeentzat eta gazteentzat enplegua bultzatzen dugu, Work 4 Progress programarekin.

KULTURA ETA ZIENTZIA

Ezagutza gizarteari helarazten diogu

PROIEKTU IBILTARIAK

Espanian eta Portugalen batetik bestera dabiltzan erakusketak eta kontzertuak (eskoletakoak eta parte hartzaileak).



Erakusketak:

Programan, 2020an: **60**

Kontzertuak:

Programan, 2020an: **280**

Bisitariak eta parte hartzaileak:

Programan, 2020an: **2,6 milioi baino gehiago**

AGORA DIGITALA

Kultura eta zientzia edukiak online zabaltzeko espazioa.



2020an:

3.500.000 bisita

ARTE GARAIKIDEKO BILDUMA

Europako bilduma pribatu garrantzitsuenetako bat, estatutako eta nazioarteko artisten 1.000 obra baino gehiago biltzen dituena.



1.030 obra

422 artista

ART FOR CHANGE

Gizartea eraldatzeko prozesuen alde egiten duten proposamen artistiko onenak hautatzen ditugu.



Aukeratuko proiektuak:

Programan, 2020an: **19**

Euskadin, 2020an: **1**

Onuradunak:

Programan, 2020an: **1.296**

Euskadin, 2020an: **38**





HEZKUNTZA ETA BEKAK

Mundu hobe
baterako *aukerak*

EDUCAIXA

Hezkuntza programa, jarduera eta baliabideak eskaintzen ditugu, oinarrizko hiru helburu hauekin:



Ikasleen gaitasunen garapena bultzatzea.

Ikasleak:

Programan, 2020an: **1.373.884**

Euskadin, 2020an: **23.317**

Ikastetxeak:

Programan, 2020an: **5.026**

Euskadin, 2020an: **111**

Irakasleen garapen profesionala bultzatzea.

Irakasle onuradunak:

Programan, 2020an: **49.926**

Euskadin, 2020an: **504**

Ebidentziak sortzea eta transferitzea hezkuntza praktiken ebaluaziotik eta zabalkundetik abiatuta, nazioarteko erakundeekin egindako itunen bidez.

BEKAK

Ikerkuntzarako talentua eta bikaintasuneko prestakuntza bultzatzen ditugu munduko ikerkuntza zentro eta unibertsitate onenetan.



Emandako bekak:

Programan, 2020an: **230**

• **Graduondokoak: 120**

• **Doktoregoak: 65**

• **Doktoratu ondokoak: 45**

Euskadin, 2020an: **9**

• **Graduondokoak: 2**

• **Doktoregoak: 6**

• **Doktoratu ondokoak: 1**

PROFUTURO FUNDAZIOA

Neska-mutikoen hezkuntza digitala bultzatzen dugu Latinoamerika, Afrika eta Asiako ingurune ahuletan, Telefonica Fundazioarekin batera.



2020an: **40 herrialde**

Onuradun:

Programan orotara: **16.085.083**

2020an: **9.086.096**

IKERKUNTZA ETA OSASUNA

Ikerketa eta *aurrerabidea*
babesten ditugu

BIOMEDIKUNTZA ETA OSASUN PROIEKTUAK

Bikaintasuneko ikerkuntza zientifiko babestu, eta Espainiako eta Portugalgo osasun proiektuen deialdi pribatu garrantzitsuena eskaintzen dugu.



Programan, 2020an:

368 proiektu abian, arlo hauetan:

- Onkologia
- Neurozientzia
- Gaixotasun infekziosoak
- Gaixotasun kardiobaskularrak
- Bestelako osasun zientziak

337 ikertzaile kontratatuta
1.053 artikulua zientifiko argitaratuta

GIZARTEAREN ZAKO BERRIKUNTZA

Jakintza eta teknologia gizareratzea eta ikerkuntzan oinarritutako enpresa berriak sortzea sustatzen dugu.



Proiektuak:

Programan, 2020an: **29**

- **Validate: 20**
- **Consolidate: 3**
- **COVID-19: 6**

CaixaImpulse programan orotara:

42 patente sortuta
24 enpresa eratorri (spin-off) sortuta

BABES ETENGABEA IKERKUNTZA ZENTROEI

Unibertsitate, ikerkuntza zentro publiko nahiz pribatu eta ospitaleekin kolaboratzen dugu, jakintza zientifiko berria sortzeko.



Ikerkuntza zentroak kolaborazio estrategikoarekin:

- *IrsiCaixa, Hiesa ikertzeko zentroa*
- *ISGlobal, Bartzelonako Osasun Globaleko Institutua*
- *VHIO, Vall d'Hebron Onkologia Institutua*
- *Barcelona Brain Research Center - Pasqual Maragall Fundazioa*
- *CNIC, Ikerketa Kardiobaskularren Zentro Nazionala*
- *CNIO, Ikerketa Onkologikoen Zentro Nazionala*
- *CSIC, Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseilua*
- *SHE Fundazioa*



Enpresa ondarea kudeatzeko eredua

la Caixa" Fundazioak CriteriaCaixa filialaren bitartez kudeatzen du bere enpresa ondarea, ondare hori zaintzeko eta areagotzeko, betiere erakundearen gizarte ekintza finantzatzea eta gizartearen, laguntzaren, kulturaren, ikerketaren eta hezkuntzaren arloetako ekimen propioen iraunkortasuna ziurtatzea izanik xede.

CriteriaCaixaren lehentasuna baliabide ekonomikoak ematea da, "la Caixa" Fundazioaren gizarte ekintzak urtez urte laguntzen jarrai dezan, gehien **behar dutenei aukera gehiago emango dizkien gizarte bat lortze aldera.**

Kudeaketa eredua gardentasunaren eta etikaren printzipioetan oinarritzen da, eta printzipio horiek zuzentzen dituzte, une oro, **konpromiso sozialaren, erantzukizunaren, konfiantzaren** eta ingurune naturalarekiko errespetuaren balioetan oinarritutako prozedurak.






"la Caixa" Fundazioa,
Europako fundazio
handienetako bat

2020an, **500 milioi eurotik gorako inbertsio** soziala.

INBERTSIOAREN
BANAKETA 2020an:

502 M€

PROGRAMA SOZIALAK	292 M€	
KULTURA ETA ZIENTZIA	91 M€	
HEZKUNTZA ETA BEKAK	53 M€	
IKERKUNTZA ETA OSASUNA	66 M€	